



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO



**EZAGUTU
NAHI DUZU
JESUS?**

2. GAIA
GURASOAK PARROKIAN

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



**Eta zuek,
nor naizela diozue?
Mateo 16, 15**

1. Helburua

- Jesusek, bera ezagutu eta bere atzetik jarrai dezagun egiten digun deia nork bere egin.

2. Helburu bereziak

- Jesus, bere izaera eta jokaera (berriz) ezagutu.
- Jesus bizi izan zen testuinguru historiko, sozial eta kulturala ezagutu.
- Jesusen galderari erantzun: "Eta zuk, nor naizela diozu?".



Idea nagusiak


- Jesusen jarraitzaile izateak bizimoduz aldatzera garamatza.
- Jesusen bizitza ezagutzea bezain garrantzitsua da helarazi zigun mezuaz jabetzea.
- Funtsezkoa da Jesusen bizimodua geure egiten saiatzea.



Ezinbesteko lagungarriak

- Arrainaren marrazkia (I. eranskina)
- Agiria (II. eranskina)
- Idazkia: "Jesusen datu historikoak" (III. eranskina)
- Abestia: Ain Karemén "Jesus" (IV. eranskina)

Hartu astia saioaren jardunbidea ulertzeko eta, aldeztu aurretik, behar izango dugun guztia prestatzeko.



Saiorako gida

Laguntzailearentzat...

Saioa, bost unetan banatuko dugu:

- 1. Unea: Agurra eta aurkezpena (15 minutu). 1., 2. eta 3. urratsak.
- 2. Unea: Edukiaren garapena (15 minutu). 4. urratsa.
- 3. Unea: Bilketa eta laburpena (20 minutu). 5. urratsa.
- 4. Unea: Otoitza eta barneratzea (10 minutu). 6. urratsa.
- 5. Unea: Familian bizitzeko. 7. urratsa.



Unea. Agurra eta aurkezpena

Laguntzaileak bildutakoak agurtu egingo ditu: "Askatasunez seme-alabei katekesian lagun egitea erabaki duzuelako bildu zarete gaur hemen. Galdera egingo dizuegu: Ezagutu nahi duzue Jesus? Erantzuna baiezkoa bada, hauxe da lekua eta unea".

Aurreko kurtsoan hainbat urrats eman eta Nazaretoko Jesusi buruzko gauza asko ezagutu genuen. Beste urrats bat ematea, Googlek kontatzen digunetik harago joatea da aurtengo proposamena.



1. Urratsa. Idatz ezazue Jesusi buruz dakizuen guztia ondorengo marrazkian. Argibide bezala,... gogoratu joan den kurtsoan landutakoa (I. eranskina).



Dinamika hau amaitu eta ezer komentatu gabe, gorde egingo dugu saioaren amaieran berreskuratzeko.



2. Urratsa. Googlen Nazaretoko Jesus bilatuz gero, 9.210.000 emaitza inguru aurkituko dugu. Bideoa jar dezakegu guzti hau laburtzeko, baina beste baterako utziko dugu hori. Etxean egin ezazue, azkenean eskaintzen dizuegun bideoarekin.



3. Urratsa. "JC", Mecano, entzungo dugu. Letran jarriko dugu arreta



Entzuteko, klik egin irudian

Pentsatzeko...

- Bazenekien abesti hau Jesusi eskainita dagoena?
- Zer diotsue Zu eta Ni esaldiak?
- Zer deritzozue abestiaren mezuari?



2. Unea. Edukiaren garapena



4. Urratsa. Denok aditu dugu zerbait Nazareteko Jesusi buruz. Baina, zera da kontua: Zer ezagutzen dugu Berataz?, edo ba ote dugu Berarekin bat egin izanaren esperientziarik? Baliteke Berataz gauzaren bat edo beste jakitea, baina bere atzean dagoen misterioa esperimentatu gabe eta, are gehiago, ezagutu gabe.

Laguntzailean hainbat datu historiko (III. eranskina) ezagutzera emango du. baliagarri dira Jesusen irudian sakontzeko, baina kristautentzat, ezagutzea eta jakitea garrantzitsua izanik ere, Berarekin buruz buru bat egitea da garrantzizkoa, eraldatu, bizia eman eta askatu egiten gaituelako. Jesusekin elkarrizketan jardun ondoren, bere bizitzari zentzu berria ematen dion emakume samariarraren esperientzia ezagutuko dugu.



5. Urratsa. **Ebanjelioko** txatal hau (**Joan 4, 5-30**) irakurriko dugu.

"Iritsi zen, bada, Sikar izeneko Samariako hirira, antzina Jakobek bere seme Joseri ondareztat emaniko lursailetik hurbil. Han zegoen Jakobek putzua delakoa. Jesus, bidez nekaturik, putzu-ertzean eseri zen. Eguerdi ingurua zen. Ikasleak hirira joanak ziren janaria erostera. Hortan, Samariako emakume bat etorri zen putzura ur bila. Jesusek esan zion: "Emadazu edaten". Orduan, emakume samariarrak esan zion: "Nola zuk, judu izanik, eskatzen didazu edatekoa niri, samariar naizen honi?" (Jakin behar da juduek eta samariarrek ez dutela elkarrekin harremanik).



Jesusek erantzun zion: "Jainkoak ematen duena ezagutuko eta edatekoa nork eskatzen dizun jakingo bazenu, zeuk eskatuko zenioke berari, eta hark ur bizia emango lizuke". Emakumeak esan zion: "Jauna, ez daukazu ura zerez atera, eta putzua sakona da. Nondik aterako duzu, beraz, ur bizi hori? Geure aita Jakobek utzi zigun putzu hau eta bertatik edan zuten berak, beraren seme-alabek eta abereek. Hura baino handiagoa al zara zu?". Jesusek ihardetsi zion: "Ur honetatik edaten duena berriro ere egarri izango da; nik emango diodan uretik edango duena, ordea, ez da sekula egarri izango; zeren nik emango diodan ura betiko bizia darion iturburu bihurtuko baitzaio barruan". Orduan, emakumeak: "Jauna, emadazu ur horretatik, berriro egarri ez nadin, eta hona uretara etorri beharrik izan ez dezadan".



Jesusek esan zion: "Zoaz etxera, dei egiozu zeure senarrari eta itzuli hona". Emakumeak erantzun: "Ez dut senarrik". Eta Jesusek: "Ongi diozu ez duzula senarrik; bost izan dituzu, eta oraingoa ez duzu senarra; horretan egia diozu". Emakumeak esan zion: "Jauna, profeta zarela ikusten dut. Gure gurasoek mendi honetan eman zioten kultu Jainkoari; zuek, juduok, berriz, Jerusalem eman behar zaiola diozue".

Jesusek esan zion: "Sinets iezadazu, emakume: badator ordua, ez mendi honetan, ez Jerusalem, Aita adoratuko ez duzuen. Zuek, samariarrok, ez dakizue zer adoratzeko duzuen; guk badakigu zer adoratzeko dugun, salbamena juduon gaitatik baitator. Baina badator ordua -hobeto esan, heldu da-, egiazko adoratzailerik Aita egiaren arabera eta Espirituak eraginda adoratuko dutena; horrela adora dezaten nahi du Aitak. Jainkoa Espiritu da, eta hura adoratzeko dutenek egiaren arabera eta Espirituak eraginda adoratu behar dute".

Emakumeak esan zion: "Badakit Mesias, Kristo alegia, etortzekoa dela, eta hark, etortzean, gauza guztiak agertuko dizkigula". Jesusek esan zion: "Neu naiz, zurekin mintzo naizen hau".

Une hartan ikasleak iritsi eta harritu egin ziren Jesus emakume batekin hizketan ari zela ikustean; halere, inor ez zen ausartu galdetzera zer nahi zuen edo zertaz ziharduen emakumearekin. Emakumeak suila utzi, hirira itzuli eta esan zion jendeari: "Zatozte egin dudan guztia esan didan gizon bat ikustera. Ez ote da bera Mesias izango?"



Pentsatzeko ...

- Eta zuk,... bizi izan duzu Jesukristorekin bat egitearen esperentziarik?
- Gaur Jesusek, "nor naizela diozu?" galdetuko balizu, zer erantzungo zenioke?



3. Unea. Bilketa eta laburpena



5. Urratsa. Ebanjelioko txatala irakurri ondoren, lehen bete duten arraina hartu eta galde diezaiotela beren buruari:

- Aurkitu dugu ezer berririk Jesusi buruz?
- Gehituko genuke zerbait Haren inguruan?
- Zerbaitek harritu nau?
- Nor da Jesus niretzat?



4. Unea. Otoitza eta barneratzea



6. urratsa. Amaitzeko, otoitzaldia egin eta bizi izandakoa jasoko dugu. Laguntzaileak bi aukera ditu, taldearen arabera bata ala bestea erabiltzeko:

a) "Jesus", ²Aim Karem, entzun.



Entzuteko, klik egin irudian

b) Elkarrekin otoitz egin:¹

Jesus Jauna, ez zinen zerbitzatua izatera etorri, zerbitzatzera baizik;
ez zinen denek mira egin ziezazuten etorri.

Zure mezuaren jarraitzaileak nahi ditugu, horregatik,
piztu guregan Zu bizi izan zinen bezala bizitzeko gogoia,
horrela zeure antz apur bat izan dezagun.

♦.....
1

Parrokiako familia katekesirako 2.gidatik hartuta, 1. gaia, Ezagutzen duzu Jesus?, 14 or. Etorri eta ikusi! gida pedagogikoa

5. Unea. Familian bizitzeko




7. urratsa. Astean, familian solasean jarduteko astia hartu eta azal dezala bakoitzak nor den Jesus berarentzat.

Leku eroso bilatu, gustura egon eta arreta gal dez dezazuen. Arretaz entzun Jesus zer den bakoitzarentzat.

Sakontzeko...

**Bideoa ikusteko,
klik egin irudian**



I. Eranskina



II. Eranskina

"JC", MECANO

**Pasabas por allí, no sé bien qué vibró dentro de mí
y sin pensar me fui detrás de ti.**

**La luna en tu melena me ayudó a seguir tus pasos por la acera
pero al doblar la esquina del bazar no sé cómo, te perdí.**

**En plena confusión escuché dentro de mi corazón
como una voz marcando la señal iba diciendo y me va diciendo,
Tú, tú y yo, tú y yo, tú y yo.**

**Como un radar en el mar y el barco a puerto quiere anclar
aquella voz subía la intención o bajaba si iba mal iba un poco mejor.
En miles de movidas me metí por seguir de tras de ti,
pero al final encontré el lugar y, en medio de la luz,
estabas esperando.**

Tú, tú y yo, tú y yo, tú y yo.

**Colgado de los palos y amarrado por los pies y por las manos
me pregunté ¿quién lo pudo hacer?**

**Trepé por la madera y aparté de tu cara la melena y te besé.
Tres palabras rotas escapaban de tus labios.**

Tú, tú y yo, tú y yo, tú y yo.

III. Eranskina. Datu historiak²

- Jesus, Nazareteko familia apal batean jaio zen eta Jose eta Maria ziren bere gurasoak. Arrazoi teologikoak medio, Mateo eta Lukasek Jesusen jaiotza Belenen kokatzen badute ere, seguruenik K.a.ko 4an hil zen Herodesen erregealdian jaio zen.
- Aramera izan zen bere ama-hizkuntza.
- Jesusek Nazareten bizi izan zituen haurtzaroa, gaztaroa eta helduaroko lehen urteak, landa-eremuko giroan eta aitak artisau-lanetan ziharduela.
- Hogeita hamar urte ingururekin ekin zion Jesusek jarduera publikoari. Aldaketarako mugimendua sustatzen ari zen Joan Bataiatzailearen berri izan ondoren, haren mezua entzun eta bataioa hartu zuen bere eskutik Jordan ibaian eta, gainera, esperientzia esanguratsua bizi izan zuen. Galilean ekin zion jarduerari profeta ibiltari bezala, hainbat jarraitzaile inguruan zuela.
- Galileatik Jerusalemera doa eta han 30. urtearen inguruan gurutzean josita hil zuten.
- Jainkoaren Erreinua iragartzen eta aurkezten du berri on eta askapen bezala eta lagun hurkoarenganako maitasuna, gauza materialak ez lehenestea, barkamena, betiko bizitzan itxaropena jartzea eta Jainkoaren esperientzia aldarrikatzen eta sustatzen ditu.
- Hizkuntza erraz eta berariazkoa darabil. Bere parabolak, bereziak dira. Ez du bere buruaz hitz egiten. Jainkoaren errukiaz duen esperientzia helarazi nahi digu.
- Bere jarduera sendagarriaren eraginez hedatu zen bere ospea (sendatzaile ugari zegoen garai hartan). Jesusen sendaketa asko eta asko miraritzat jotzen zen.
- Jesusen entzutea hedatuz zihoala ikusita eta bere jarrera zirikatzaileaz –oso kritikoa zen lege juduak ezarritako hainbat ararekin- gogaituta, Israeleko agintarien amorrua gero eta handiagoa zen; gainera, baztertuak zituen lagun, bekatarien lagun bihurtu zen, hartu-eman zuen emakumeekin, farisearren itxurakeria moralaren aurka agertu zen, Jainkoari aita esaten zion eta Jainkoaren semetzat zuen bere burua...
- Azkena gertu zuela jakinda, azken afaria ospatu zuen adiskideak agurtzeko; ostean, atxilotu egin zuten bere adiskideetako baten laguntzarekin, eta bakardade gordina sumatu zuen atxilotetaren unean. Epaitu eta tratu txarrak jasan ondoren, heriotzara kondenatu zuten. Bere buruaren eskaintza hori eredugarri da, izan ere, bere bizia eman zuen eta maitasuna adierazi gu guztiengatik.
- Handik egun batzuetara, lehen ikasleek, krisialdi latzaren ostean, uste osoz iragarri zuten “Jainkoak Jesus hilen artetik berpiztu” zuela.

♦.....

² Parrokiako familia katekesirako 2.gidatik hartuta, 1. gaia, Ezagutzen duzu Jesus?. Etorri eta ikusi! gida pedagogikoa

IV. Eranskina

"JESUS" ABESTIA, AIN KAREM

**Tú eres Palabra de Vida, ¡Jesús Maestro!
Tú eres Salud y Esperanza, ¡Jesús Sanador!
Tú quien deshaces nuestras ataduras, ¡Jesús Liberador!
Fuente de Agua Viva, Mesa de Paz, ¡Jesús, nuestro Señor!
ANTE TU NOMBRE, JESÚS,
NUESTRAS RODILLAS SE DOBLAN
SÓLO EN TU NOMBRE CAMINAREMOS Y
ANUNCIAREMOS EL REINO DE DIOS.
JESÚS, BUEN JESÚS, NUESTRO SEÑOR, JESÚS.
Tú eres Luz y Camino, ¡Jesús Maestro!
Tú eres Perdón y Refugio, ¡Jesús Sanador!
Tú quien despierta nuestros oídos, ¡Jesús Liberador!
Fuego en las entrañas, Amor Verdadero, ¡Jesús, nuestro Señor!
Tú eres nuestro Sentido, ¡Jesús Maestro!
Bálsamo y Consuelo en nuestras heridas, ¡Jesús Sanador!
Tú quien nos hermanas colgado en un Madero, ¡Jesús Liberador!
Pobre entre los pobres, Dios hecho pequeño. ¡Jesús, nuestro Señor!**